

PRENTSA OHARRA

Gastronomia eta ikasleen bizimodua uztartzen dituen saioak irabazi du EikenBANK-en III. Edizioa

- UPV/EHUko hiru ikasle gaztek asmatutako "ErrezEta ikasiz" proiektua aukeratu dute www.eikenbank.com-en aurkeztutako 67 proiektuetatik.
- Baleukok ekoitziko du programa, eta ETBn emango dute.

Gastronomia eta ikasleen bizimodua uztartzen dituen "ErrezEta ikasiz / EsTuDia, tu receta" saioak irabazi du, hain zuzen, EikenBANKen III. Edizioko lehenengo saria. Erika Elizari, Beñat Gereka eta Alaitz Anabitarte UPV/EHUko ikasle gazteen ideia gailendu da 67 proiektuen artean. Hala, 4.000 euro jaso dituzte eskuan, eta antzeko balioko beka bat, euren ideia Baleuko ekoizpen-etxean lantzeko.

Hementxe hasiko du, beraz, bere ibilbidea "ErrezEta ikasiz" saioak. Lehenik eta behin, Baleukok era profesionalean ekoitziko du, eta ondoren, ETBn emango dute. Hori horrela izango dela jakinda, EikenBANKeko epaimahaiak, herrialdeko ekoizpen-etxe nagusietako profesional adituek osatutakoak, ideiarene originaltasuna eta merkatuan izan dezakeen bideragarritasuna hartu ditu aintzat.

Era berean, EikenBANKeko epaimahaiak hiru aipamen berezi egin dizkie beste hainbeste proiektuari: doku-reality onenaren saria Patrick Guisasolari eman dio, "Bailando con el abismo" ("Amildegiaekin dantzan") lanagatik; "pitching" onenaren saria Leire Gómez, Arrate Egaña, Oier Martínez eta Santos Ruedari eman die, "15-25" lanagatik; eta telebistako saioetarako gidoirik onenaren saria, berriz, Ibai Gómezi, "Nor da hemen bahitua?" lanagatik. Ibai Gómezek, halaber, aurten lehenengo aldiz eman duten BBK Beka jaso du.

EiTBk Bilbon duen egoitzan egindako jaialdian ezagutarazi dituzte sariak. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendari Mikel Toral eta Eikeneko presidente Juan Mari Gurrutxaga izan dira ekitaldiko buru.

EikenBANK PROGRAMA

Sariak banatzeko ekitaldia, beraz, orain hiru hilabete hasitako prozesuaren amaiera izan da. Orduan, EikenBANK programaren sustatzaileak (Eiken-Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak) III. Edizio honetarako ideiak aurkezteko epea zabaldu zuen. Gazte sortzaileek, Ikus-entzunezko munduan modu profesionalean ez dabilzanek, dokumentaletarako, lehiaketetarako, TBko saioetarako eta film luze zein laburretarako euren proiektuak aurkeztea zen, hain zuzen, helburua. Hala, ekimen hau kudeatzeko erabiltzen den web orriak 67 ideia original erregistratu zituen orotara; hau da, EikenBANKen lehenengo edizioan jasotakoak halako bi eta gehiago (ordukoan, 27 proiektu jaso ziren).

EikenBANKen arduradunek ahalegin itzela egin dute aurten, ekimena urteko lehenengo hiruhilekoan aurkezteko, hain justu, bostehun ikasle ingururen aurrean: ikastetxeetakoak, zinema

eskoletakoak eta Ikus-entzunezkoen munduarekin lotura duten unibertsitateko tituluetaoak. Izan ere, Eikenek 2008an abian jarritako programa berritzaile honen helburua **sormenezko talentu ez-profesionala topatu, eta enprekin harremanetan jartzea** baita. Hala, lankidetzaz horri esker, Euskadiko Ikus-entzunezkoen munduan produktu lehiakorragoak sortu ahal izango dira.

Horrenbestez, enpresaren eta talentuaren arteko zuzeneko harreman hori bultzatzeko, EikenBANK sariak banatzeko ekitaldian (gaur izan da, 19:00etan, EITBren eraikineko Multibox Aretoan) aurrez aurreko edo *Face to Face* (F2F EikenBANK) bat antolatu dute, finalistek ekoizpen-etxeekin harremanetan jarri ahal izateko, eta elkarren artean eskarmentuak trukatzeko.

Klusterreko bederatzi enpresak hartzen dute parte EikenBANKen; honako hauek, hain zuzen: **3Koma, Baleuko, Canal Bizkaia, EITB, Irusoin, Jarkatza, K 2000, Orio Produkzioak eta Pausokak**. Gainera, instituzioen babes handia dauka programak; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntza (Kultura Sailaren bitartez), Bilboko Udalaren laguntza eta BBKren laguntza (Gazte Lanbidean Fundazioaren bitartez) izan du.

Instituzioek, bestalde, begi onez ikusi dute enpresa lehiakideak (Euskadiko Ikus-entzunezkoen Sektorerako garrantzitsuenak) **talentu ez-profesionalaren aldeko proiektu batean lankidetzan** jarduteko batu izana. Aurreko edizioan bezalaxe, ekimenak beste hainbat erakunderen babesa ere jaso du; besteak beste, UPV/EHurena, Mondragon Unibertsitatearena, Deustuko Unibertsitatearena eta EAEko Ikus-entzunezkoen Ikastetxe eta Zinema Eskola guztiena.

2010eko EDIZIOA, KOPURUTAN

EikenBANKen hirugarren edizio honetan, 94 pertsonak sinatutako 67 lan aurkeztu dituzte; 2009an, berriz, 70. Parte-hartzaileen %52 bizkaitarrak dira, %34 gipuzkoarrak, %5 arabarrak eta %8 beste toki batzuetakoak. Aurkeztutako 67 proiektuetako gehienak (%21) dokumentalak egiteko ideiak dira. Atzetik daude telebistako saioetarako ideia originalak (%15), telebistarako lehiaketak (%13) eta *magazineak* (%10).

EikenBANK 2010eko FINALISTAK

PROIEKTU IRABAZLEA

“ErrezEta ikasiz / EsTuDía, tu receta”

Sustatzaileak: Erika Elizari, Beñat Gereka, Alaitz Anabitarte

BBK BEKA ETA TBko SAIOTARAKO GIDOI ONENAREN AIPAMEN BEREZIA

“Nor da hemen bahitua?”

Sustatzailea: Ibai Gómez

DOKU-REALITY ONENAREN AIPAMEN BEREZIA

“Bailando con el abismo” (“Amildegiearekin dantzan”)

Sustatzailea: Patrick Guisasola

PITCHING ONENAREN AIPAMEN BEREZIA

“15-25”

Sustatzaileak: Leire Gómez, Arrate Egaña, Oier Martínez, Santos Rueda

BBK BEKA ETA TBko SAIOETARAKO GIDOI ONENAREN AIPAMEN BEREZIA

“Nor da hemen bahitua?”

Sustatzailea: Ibai Gómez

PROIEKTU FINALISTAK

“OHARKABEAK”

Sustatzaileak: Natalia Campo, Alaitz Mendoza

“MIRADAS DE...” (“... BEGIRADAK”)

Sustatzaileak: Laura Hernández, Nerea Pedrero, Camino Ruiz, Jon Sagastume

“J@ K NOCHE!” (“J@ K GAUA!”)

Sustatzaileak: Jon Aitz Urrutxi, Juan Manuel Parrilla, David Getino

“UNA ILUSIÓN PARA EL RECUERDO” (“OROITZAPENERAKO ITXAROPENA”)

Sustatzailea: José Félix Díez

“EL MUNDO EN TUS CALLES” (“MUNDUA ZURE KALEETAN”)

Sustatzailea: Marixa Osés

“ETA AMAMA?”

Sustatzailea: Alexander Silva
